





**Alberdi, Uxue.- Kontrako ezarririk** - Uxue Alberdi idazle eta bertsolariak 15 bertsolari elkarrizketatu ditu. Helburua, aldiz, ez da bertsogintzaren teknika finduez, koplen kalitateaz edo zortzikoen *flow*-az mintzatzea, ezpada horiek guztiak nortzuek, nondik eta norentzat sortuak diren aztertzea; bertsolaritza praktika sozial bat baita eta praktika sozial oro baita gure garaiko botere harremanen dispositibo. Hala adieraziko dute elkarrizketatuek. Maiz entzuten dugu emakume mordoia omen diharduela bertsolaritzan, baina datuak eta pertzepzioak ez datoz bat. Emakumeen ikusgarritasuna gizonezkoen desiraren neurrira egina da, eta gizon publikoaren osagarri rola betetzen duen bitartean, emakumea (singularrean) onartua da gizonen espazioetan, baina gizonenak dira espazio publikoak.



**Arretxe, Jon.- Mesfidatu hitzez** - Bilboko Afrika Txikitik ihesi atera zen poliziak jazartzen zuelako; gero, Nafarroako Pirinio aldeko herri txiki batean bizi izan zen bolada labur batez; abenturaren jarraipenak Parisa darama Toure, Argien Hiri ederrera. Bertan bizi izan zen Sira alaba, eta bertan bizi nahi du gure pertsonaiak, nabarmendu gabe ahal dela, kamuflaturik Afrikar jatorriko hainbeste jenderen artean. Lehendabiziko aldiz bere bizitzan Toure diruduna dela esan daiteke. Yareliz lagunak irakatsi dio estutasun ekonomikorik gabe bizimodua ateratzen; Burkina Fasoko bere familiari dirua bidaltzeko moduan ere bada, eta era horretan zentzu pixka bat bilatzen hasten zaio migratzearen ofizio arriskutsuari.



**Atxaga, Bernardo.- Etxeak eta hilobiak** - Ibai bakarrera jotzen duten errekek dira Bernardo Atxagaren azken nobela hau osatzen duten piezak. Badoaz urak, eta badoa irakurlea Ugarteko herritik Pauera, edo Baionara, edo Gaztelara, edo Texasera. Etengabea da mugimendua. Etengabea protagonisten joan-etorria ere. Narrazioan sartu eta atera dabilta txikitik bat izandako anaia bikiak, Frantziara frantses ikastaro bat egitera joan eta mutututa itzuli den nerabea, Madrilera El Pardo kuartelean gertatu diren lau lagunak, astero Baionako psikiatra batengana joaten den ingeniaria, "From fat to fit" telebista programaren protagonista, sindikatu baten aldizkarian diharduen emakume gaztea, ospitaletik alde egiteko gogoz dagoen neskatua...



**Bergara, Aritz.- Jentilak** - Joseba Etxebarrieta Euskal Herriko Unibertsitatearen irakaslea da Antropologoa Sailean eta, gure herriaren kultura, sinesmen eta ohiturei dagokienez, aditu nagusienetakoa dugu. Hori dela eta, euskal mitologiaren hedatzaile handia izan zen Aita Barandiaran isilpean gordetzen saiatu zen idazki batean ostentzen den gertakari iluna argitzeko asmoa duen lantalde batera sartuko da. Antzinako izkribua ikerturik, garbiro lotu zuten belaunaldiz belaunaldi igarotako kondaira zahar batekin, bertan Jentilak nola galdu ziren azaltzen baita. Teknologiarik aurreratuena erabilita, baina, haratago iritsiko dira azterlanean, alegiazko akabera hura gertatu bide zen bazter-lekua aurkituko baitute. Ustekabekoz jositako ikerketa bizi-bizia abiaraziko dute.



**Ehrenreich, Barbara.- Sorginak, emaginak eta erizainak** - Gaur egun osasun-sisteman daukagun posizioa ez da 'naturala' eta azalpen bat eskatzen du. Liburuxka honetan zera galdetu nahi izan dugu: Nola igaro gara iraganeko gailentasun-egoeratik egungo mendetasun-egoerara? Gure ikerketak zera erakutsi digu: emakumezko osasun-langileen bazterketa eta gizonezko profesionalen nagusitasuna ez zirela prozesu 'natural' bat izan. Ez zen medikuntzako zientziaren baitako aldaketen emaitza automatiko bat edo emakumeen sendaketa-lanak egiteko ezintasunaren emaitza, gizonezko profesionalen botere-hartze aktibo baten ondorioa baizik. Eta gizonak ez ziren zientziari esker gailendu.



**Elorriaga, Unai.- Iturria** - Pedro Iturriak obsesio bat dauka: ipuin itxurako testuak idazten ditu. Ez dakigu jatorriz zer hizkuntzatan idazten dituen, baina badakigu Txekian txekieraz argitaratzen duela, Hungarian hungarieraz. Soro Barturenen gaztetako laguna da Iturria, eta Sorori iruditzen zaio berari buruz ari dela ipuinotan, berari begira idazten dituela. Horregatik ari dira agian Soro eta Erroman Iturriaren bila European zehar: hegazkinak hartzen, hoteletan lo egiten, laster laurogei urte izango dituzten arren. Herrialderen batean Iturriaren ipuinen bat argitaratu dela dakiten bakoitzean hara abiatuko dira: itzultzaile bat lortu, ipuina irakurri, Iturria non bizi den ikasi... Baina ez dute hain erraz topatuko laguna. Ipuin liburu bat biltzen du Unai Elorriagaren nobela honek, eta adiskidetasunari, literaturari eta zahartzaroari buruzko begirada pertsonala gordetzen du.




**Elorrieta, Irati.- Neguko argiak** - Eszena eta ahots franko zelatatzen ditu eleberriak, erritmo azkarreko film baten gisan. Añesen eta Martaren ibilbideak zeharkatzen dituzten hainbat pertsonaia badatoz eta badoaz, leihoetan piztu eta itzaltzen diren argiak bezala, irristan. Porrotari, erresistentziari, ihesari edota berriz zerotik hasi beharri buruzko kontakizunak harilkatuz, leku eta denbora ezberdinetako eszenak proiektatzen dira gizatalde solte baten barne munduan. Egileak eraikitzen duen puzzle gisako horretan, pertsonaia bilakatzen dira leku batzuk: Paris, Uribe Kosta eta, batez ere, Berlin. Osagai horiekin, aldez hutsal aldez gako diren uneen friso bizia ondu du Irati Elorrietak bere bigarren liburuan.



**Emagin.- Ezagutzaren matazak** - Mugimendu feministak eta ekinbide komunitarioek azalarazi dutenez, ezagutza elkarreaginean eta elkarlanean sortzen da beti. Hala izanda ere, egitura akademiko eta hierarkikoak dira nagusi ezagutza kudeatzerakoan eta hedatzerakoan. Liburuxka honetan, gogoeta feminista kolektiboa gorpuztu dugu ezagutzaren inguruko korapilo zenbait askatzeko asmoz (prozedurak, ikergaiak, metodologiak, erakundeak...). Aldi berean, askatu gabeko korapiloak eta hari-muturrak ere ikusgarri egin nahi izan ditugu, askotariko ikerketa-jardunetan zer-nolako erronka feministak ditugun xehatu ahal izateko.



**Etxeberria, Xabier.- Txoria nintzela** - 1980tik 90era doan hamarkadan zehar, Euskal Herriko edozein txokotan egon litekeen herri ertain batean, neska-mutil sorta bat, gero nerabe bihurtzen direnak eta geroago gazte. Elkarrekin txirikordatzen diren istorio hauetan umetako jolas ez beti inuzenteak ikusiko ditugu, norbere identitate sexualaren deskubrimendua, jaietako parrandak, oso lagunak ez diren adiskideak, politikak etsaitzen dituenak... Ipuin bizi eta arinak burutu ditu Xabier Etxeberriak, estilo, gai eta erritmo askotakoak, idazlearen esku trebearen erakusgarri. Umore oneko eta entretenigarri, batetik, baina itxura alai horren azpian mamia eta sakontasuna ere badutenak, bizitzan giltzarri diren kontuetan gizatasunezko jarrera bat adierazten dutenak.




**García-Viana, Txema.- Pentaedroa** - 36ko gerran kokatutako errepublikazalez osatutako antzerki talde baten bizipenak ditu ardatz: beren herrira faxistak sartzean, antzerki talde horretako kideak sakabanatu egiten dira, eta bakoitzaren ibilbidea kontatzen da. Bosten istorioak etengabe txirikordatzen direlarik. Baina abentura nobela bat baino gehiago da. Gerren izugarrikeriaren eta haien parte izandako pertsonen inguruko gogoeta bat baita.



**Lertxundi, Anjel.- Itzuliz usu begiak** - Hizkuntza atzerritar batetik euskarara "itzuliz usu begiak" egiten dute lan itzulzaileek, hizkuntza biziberrituz gai eta aire orotarikoez, sorkuntza aberastuz, euskarak inoiz imajinatu ez dituen egoerak eta munduak izendatuz, sistema literarioa indartuz. Baina itzulpenik gabe, beste hizkuntza bat dugu, ez euskara, literatura unibertsalaren munduan ibiltzeko bidaide. Itzulpenik gabe, beste hizkuntza batetik hartzen ditugu literatura unibertsalaren testuak eta erreferentzia historikoak, beste hizkuntza batean bilatzen ditugu berrikuntzak ere. Itzulpenik gabe, beste hizkuntza batetik jasotzen ditugu munduak munduaz esandakoak, beste hizkuntza batean asetzen dugu gure egarri kultural noranahikoaren guztiz gehiena. Argi dago, ezinago argi: itzulpen faltak ondorio latzak dakartzkio euskal sistema literarioari eta euskarari.




**Meabe, Miren Agur.- Hezurren erretura** - Herenegun umea zena, neska izan zen atzo, eta helduaro betean da orain. Oroitzapenetan —eskola-egunetan, familia giroan, jolasetan...— bilatu ditu bere nortasunaren lorratzak. Onartzen ditu denboraren joanak emandako gal-irabaziak. Badaki bereizten bizitzari zer eskatu eta zer ez. Babak eltzetik ateratzen ikasi du. Bere egin du falta direnen ausentzia. Ez du sinesten amodioaren balio absolutuan, nahiz eta azken aukera eman maite-kontuei. Ezagun zaizkio beste andre batzuen irrikak eta beldurrak. Ez du galdu ironiaren ufada. Eta bakardadeak eman dio hazten jarraitzeko azken bultzada. Aldian-aldean erretura egin beharra gertatzen zaigu, haizea zainduta, onuragarria behar lukeena kalterako izan ez dadin. Horretan dihardu hogeita bat narrazio hauetako protagonistak ere, idazketaren bidez erretzen bizitzan pilatutako hezurak: zor-hartzeak, azertuak, akatsak, pauso legitimo nahiz ilegítimoak.




**Odriozola, Elena.- Etxean barrena** - Zergatik sentitzen gara irainduak norbaitek gutaz zerbait esatean, eta beste norbaitek esatean ez? Zer da mingarriagoa: errua ala lotsa? Nostalgiaekin, zergatik sentitzen dugu mina eta aldi berean plazer arin bat? Ba ote zentzurik inbidia onaz mintzatzeak? Zer behar da norbaitekin enpatia izateko? Plazerari ihes egitea ez ote da plazera sentitzeko modu gaixobera bat? Bikotekideak, anai-arrebak, gurasoak... gauza berataz ari ote dira maitasunaz ari direnean?



**Osoro, Jasone.- "Goazen! 2" Eiderren egunerokoa** - Iker eskalatzailea da, mutil jatorra eta liluragarria. Eiderrek aspaldi amesten du berarekin. Gutxien espero duenean Iker gerturatu egingo zaio, eta elkarrekin ateratzen hasiko dira. Eider pozak txoratzen dago, maiteminduta, eta sentitzen duen guztia, bizitzen ari den guztia eguneroko batean kontatuko du. Eguneroko hori irakurriz jabetuko gara ustez harreman aberasgarria izan behar zena mugatzailea eta toxikoa bihurtuko dela. Danelen laguntzari esker, begiak irekiko ditu, eta beti pentsatu izan duen bezala, printze urdinik ez dela existitzen ohartuko da Eider.



**Pateman, Carole.- Kontratu sexuala** - Iraultza frantsesak «liberté, égalité, fraternité» aldarrikatuz ezarritako ordenak kontratu soziala jarri zuen indarrean, ustez askatasunean, berdintasunean eta elkartasunean oinarritzen zen ituna. Baina kontratu soziala ez da askatasunez egiten, ez berdinen artean, ez eta adostasunez ere, ez bada anaidiaren barnean; fraternité ez baita elkartasuna, anaien, gizonen, arteko aliantza baizik. Kontratu soziala libertateari buruzko fikzio politiko bat baino ez da; kontratu sexuala, berriz, menderakuntzari buruzko historia bat. Berez kontratu soziala itun sexual-sozial bat da, gizonezkoek emakumeen gorputzez jabetzeko itundua duten sexurako eskubidea duelako oinarri. Kontratu soziala patriarkatua iraunarazteko itun bat da, eta, horretarako ezkontza, enplegu, prostituzio eta haurdunaldi subrogatuaren kontratuak baliatzen ditu.



**Paya, Xabi.- Nori** - *Nork* komikian Andoni Egañaren balizko hilketa baten ikerketa kontatzen bazitzaigun, trilogia bat izateko asmoa duen honen *Nori* bigarren komiki honetan euskara batuaren alegiazko patentatzearen ikerketa dakarkigute oraingoan. Lehenengo haren leloa *Nork hil du Andoni Egaña?* bazen, bigarren honena *Nori saldu diote euskara batua?* litzateke. *Norken* bertsolaritza zen gai nagusia eta *Norin* euskara, baina bietan ukitzen dira euskal kulturaren gai ugari, Xabi Payak honetaz duen ezagutza sakonaren erakusgarri. Eta orduko hartan bezala oraingo honetan ere euskal munduko milaka pertsonaia eta erreferentzia aurkituko ditugu eta lehertzeraino egingo dugu barre istorioaren zein marrazkien umorearekin.



**Ubeda, Garbiñe.- Mehatxua** - Amak Frantziara, Nizako aldiri urrunetara, bidali du Larraitz uda pasatzera, institutuko irakaslearengandik aldentzeko; euren arteko harremana ez omen da “naturala”. Larraitzek, ordea, ezin dio inori kontatu Kilopondiorekin duen loturaren arrazoia, ez etxeikoiei ez lagunei. Edozein modutan, hilketaren lekuko izan ondoren, herritik urrutiratu beharra zeukan, Martinen abandonatzea gainditzen hasteko eta, batez ere, arriskuan dagoelako. Ezagutzen ez duen familia baten etxean egokitu da, itxuraz, amaren gaztetako lagunak. Ustekabean, iraganari ihes egitea ezinezkoa dela gogoraraziko dio telefono-dei batek: “Hola, hija de puta. Sabemos todo de ti. Como se te ocurra volver, te vamos a matar”.



**Zubizarreta, Patxi.- Julien Vinsonen hegaldia** - 2015ean Chiarak euskara ikasteari ekin zion Boloniako unibertsitateko Lingua e cultura baska departamentuan. Geroago, 2108an, lau asterako Hendaiara etorri zen, Euskal Herrira bere antzera etorritako euskalariei buruzko lan bat egitera. Julien Vinson (1843-1926) Chiarak zerrendan zuen izenetako bat zen: heterodoxoa, gorria, darwinista, euskararen heriotzaren iragarlea; ausarta ere bazen eta parte hartu zuen, Baionan, 1875eko martxoaren 29an egin zuten globo hegaldian. Bidaia gorabeheratsua suertatu zen eta Iruñean izan zuen nola-halako akabera, hain zuzen ere hiriburua karlistek setiatua zuten garai nahasian. Globozaleak susmagarriak gertatu ziren iruindarren artean –Cabrerak jeneral karlistaren bake mezularitzat jo zituzten–, eta Saturno aerostatoaren helburua bera ere zalantzazkoa iruditu zitzaion Chiarari. Hala bada, bere asmo akademiko eta sentimentalak kasik detektibeskoak bilakatu ziren, zenbaitetan bertigoa eragiteraino.